

REGGAETARIA 2026

Programazioa eta kartela:

Uztailak 4 larunbata. Programazio musikala:

- UPYARD
- GHETTO FYAH!
- REVOLUTIONARY BROTHERS
- BEÑARANKS
- EIRA
- GROMPY



UPYARD

Upyard roots reggae taldea Mungian (Bizkaia) sortu zen 2022an. Jamaikako 70. eta 80. hamarkadako urrezko garaiko musikak inspiratuta, taldeak erritmo klasikoaren sendotasuna uharteko melodia freskoenekin uztartzen du.

Taldearen erreperatorioan abesti originalak zein Jamaikako artista ezagunenen bertsioak daude, generoaren mamia jasotzen duen zuzeneko esperientzia eskainiz. Euskal Herriko reggae eszena sendotu eta hazteko helburuarekin, taldeak hainbat herritan jo du, hala nola Orion, Bilbon, Miranda de Ebron, Azpeitian eta Maruri-Jataben.

Ibilbidea eta disko berria

Taldeak bere lehen diskoa kaleratu zuen 2025eko maiatzean, “Sufferah’s Time” izeneko. Ja-torrizko 10 ahots-kantu dituen lan hau Roberto Sánchez ekoizle ospetsuaren A-Lone Ark Muzik Studio entzutetsuan grabatu eta nahastu zen.

Diskoa binilo, CD eta formatu digitalean argitaratu da, eta Euskal Herrian sustrai-musika hazteko eta sustatzeko funtsezko urrats gisa har daiteke.

Hemen entzungai:


<https://upyard.band/sufferahs-time/>

<https://upyard.bandcamp.com/album/sufferahs-time>



BEÑARANKS

Beñaranks Euskal Herriko reggae eszenako ahots berezietako bat da. Donostian sortua, reggae, rub-a-dub, dancehall eta hip-hop estiloak naturaltasunez uztartzen ditu, betiere euskarari protagonismo berezia emanez. Bere ibilbidean zehar, euskarazko reggae digitalaren aldeko apustu sendoa egin du, eta lan propioetan zein kolaborazioetan erakutsi du estilo eta erritmo ezberdinetara moldatzeko gaitasun handia. “Top Ranking Showcase”, “Ganbaratik” edo “Gure Txanda” bezalako lanetan argi geratzen da bere nortasun musikala, Jamaikako sustraiak eta euskal kulturaren izaera uztartuz.



Bakarkako proiektuez gain, Beñaranks hainbat ekimen kolektibotan aritu da, besteak beste Agoteak roots reggae taldean eta Herrimin proiektuan. Azken honetan, euskal eta nafar folkloreko kantu ezagunak reggae ikuspegitik berrinterpretatu ditu, tradizioa eta modernitatea elkartuz. Bere letrek gizarte gaiak, sentimendu pertsonalak eta kultur nortasuna jorratzen dituzte, eta horrek euskal reggae eszenako erreferente polifazetiko eta sortzaile bihurtu du.

GHETTO FYAH



Ghetto Fyah Zarauzko reggae sound system eta DJ kolektiboa da, Jamaikako musika kulturatik edaten duena. Bere saioetan reggae digitala, rub-a-dub, dancehall eta dub doinuak uztartzen dituzte, betiere soinu indartsua eta dantzagarritasuna ardatz hartuta. Reggae digitalaren ezaugarri nagusia erritmo elektronikoen erabilera da; 1980ko hamarkadatik aurrera garatutako estilo honek sintetizadoreak eta makina bidezko oinarriak erabiltzen ditu, reggae klasikoaren espiritua ikuspegi moderno batekin berrituz.

Urteotan Euskal Herriko reggae eszenan presentzia nabarmena lortu du Getto Fayak, hainbat jaialdi eta kultur ekitalditan parte hartuz. Bere selekzio zainduaz gain, kolektiboak ekoizpen propio interesgarriak ere garatzen ditu, reggae digitalaren eta sound system kulturaren sustraiak gaur egungo soinuekin uztartuz. Energia handiko zuzenekoak eta bass pisutsuak dira haien nortasunaren ezaugarrietako batzuk, publikoari benetako sound system esperientzia eskainiz.

REVOLUTIONARY BROTHERS



Revolutionary Brothers hogei urteko ibilbidearekin reggae eszenan erreferente nagusi bat bilakatu da. Euren proiektua estilo fresko eta modernoaz osatu dute, reggae ardatza izanda soul, hip hop, dancehall, Jungle eta dubstep pintzeladekin osatzen dute beraien eskeintza musikala.

Estatuko dubplate bildumarik zabalenetako eta ospetsuenetako bat dute, izen oso famatuekin: Damian Marley, Kymany Marley, Sean Paul, Shaggy, Diana King, Horace Andy, etabar.

Beraien emanaldien zati oso potentea eta balioa erantzi handia eman diena zuzenekoetan egiten duten kolaborazioak dira: nazioarteko artista ospetsuekin: Million Stylez, General Levy, Treesha, Sara Lugo, Skarra Mucci, Tippa Irie, Hermano L, Raphael, Lion D, Marina P, Dr Ring Ding besteak beste. Urte hauetan Revolutionary Brothers diska ugariak argitaratu dituzte, bakoitzak urrats ezberdina adierazi izan du musika bizitzeko moduan.

Aldi berean, oso aktiboki lan egiten dute kultura-ekitaldiak antolatzen eta sustatzen, IndaGlory Kultur Elkartearen bitartez. Bere helburua eszena dinamizatzea eta lotura-zubiak sortzea da tokiko eta nazioarteko eszenaren artean. Horren adibide da Revolution JamRock ekitaldia, estatuko jaialdi nabarmenetariko bat.

EIRA



Eira ahots gozo eta indartsuagatik nabarmentzen den Donostiako abeslaria, soularen berotasunaren, musika beltzaren sustraian eta reggaearen kadentziaren artean naturaltasunez mugitzen da. Musiken jazz abeslari gisa trebatua, Eirak oinarri tekniko sendo hori bere estiloa definitzen duen benetako adierazkortasunarekin uztartzea lortu du.

Azken urteotan, hainbat reggae talderekin lan egin eta kolaboratu du, eta horren emaitza nagusietako bat Revelation diskoa kaleratzea izan zen 2021ean Revolutionary Brothers Music diskoetxearekin batera. Lan honetan bere ahotsak gaur egungo roots eta dub erritmoen gainetik distira berezia hartzen

du, eta publikoaren eta eszenaren harrera beroa izan zuen, bere freskotasunagatik, mezu kontzienteagatik eta lortzen duen lotura emozionalagatik.

Etengabeko bilakaeran dagoen artista, Eirak musikarekin eta mezuarekin konprometitutako ahots belaunaldi berri bat ordezkatzeko du, sentikortasuna, heldutasun artistikoa eta inor hotz uzten ez duen eszenatokiko presentzia ekarri.

GROMPY



Grompy Zarauzko abeslari eta frontman honek urteak daramatza musikaz gozatzen, eta bere kontzertu guztietan transmititzen du pasio haundiz. Estilo fresko eta dibertigarri batekin, eszenatokitik haratago doan indarra eta berotasuna transmititzeko gai da.

Hainbat talde eta kolektibotan parte hartu du, eta bertan bere raggamuffin estiloa nabarmentzen da, funk eta hip hop bezalako beste estilo batzuetako eragin argiekin